

Euskalduna

Euskalduna? Nire aitona Oiartzungoa zen! Ezagutzen al duzu Oiartzun?

Ezetz esan duzu buruaz:

Tira, ezagutu ezagutzen dut, baina ez naiz inoiz han egon.

Desengainua nabaritu duzu emakumearen aurpegian.

Pucha! Zu bai zu euskalduna... Ni oso harro nago nire erro horietaz. Aitona abeltzaina omen zen Oiartzunen, baina badakizu, krisi ekonomikoa gora eta behera, gu ez baikara izan krisia jasan duten lehenak, aizu; bada, ontziratu eta Valparaisora heldu zen. Dirudienez, emaztea eta seme-alabak utzi zituen Euskal Herrian. Tira, abandonatu. Valparaisoan nire amona zena ezagutu zuen, emakume ederra. Eta langilea. Ez pentsa.

Berriro begiratu duzu ordularia. Ordu biak eta berrogeita bi. Kaka putza. Berandu ailegatuko zara gaur ere lanera. Ez al da hiri honetako autobus bat bera ere garaiz heltzen? Alkandorako lehen botoia askatu eta gorbatako korapiloari tira egin diozu, lepoa askatuz. Soinean gurutzatutako zorrotik zapia atera eta tentuz lehortu duzu kopetako izerdia. Halako beroarekin autobus geltoki batetik bestera korrika ibili behar izatea ere... Demontre! Zein lasai egongo nintzateke ni orain, Txile beharrean, Washingtonen eskaintzen zen beka hura aukeratu izan banu. Nahiari jarraiki Santiagora etortzea ere! Herrialde luzanga madarikatu honetaraino isuri behar izan nuen Nahiagatik lerdea! Baboen artean baboena izan behar dut, zalantzarik gabe. Hona heldu eta bi hilabete luze zain egon eta gero, behingoz berarekin elkartzeko aukera suertatu eta "Aspaldiko, Mikel! Hauxe duzu Andrés. Duela aste batzuk elkar ikusten dugula eta zeuek ere elkar ezagutzea ideia ona izan zitekela otu zait" izan ziren zuzendu zizkidan lehen hitzak. Andrés. Andrés! Aupa, Andrés, baboenetan baboena nauzu ni! Baboen jaun eta errege, urte askotarako!

Aizu, barkatu, ba al dakizu zer ordutan pasatzen den autobusa? Aizu?

Urruneko hitzen hotsak gelditu du zure zigorkatze une goxoa.

Ez, zain nago ni ere. Duela hamar minutu pasatzekoa zen, baina hamabost daramatzat nik hemen eta oraindik ezertxo ere ez.

Hara! Espainola! *Joder*, ba elkarrekin itxaron dezagun, *coño*!

Iribarre hotza zuzendu diozu zure aurrean zutik dagoen emakumeari. Ehungarren aldia da txantxa hori entzun behar izan duzula herrialde honetan. *Joder* eta *coño*. *Coño* eta *joder*. Beste hitzik erabiliko ez bazenu bezala.

Ez naiz espainola, euskalduna baizik.

Euskalduna? Nire aitona Oiartzungoa zen! Ezagutzen al duzu Oiartzun?

Ezetz esan duzu buruaz.

Tira, ezagutu ezagutzen dut, baina ez naiz inoiz han egon.

Desengainua nabaritu duzu emakumearen aurpegian.

Pucha! Zu bai zu euskalduna... Ni oso harro nago nire erro horietaz. Aitona abeltzaina omen zen Oiartzunen, baina badakizu, krisi ekonomikoa gora eta behera; gu ez baikara izan krisia jasan duten lehenak, aizu; bada, ontziratu eta Valparaisora heldu zen. Dirudienez, emaztea eta seme-alabak utzi zituen Euskal Herrian. Tira, abandonatu. Valparaison nire amona zena ezagutu zuen, emakume ederra. Eta langilea. Ez pentsa.

Autobusera sartu eta berehala, Nahiari mezua bidaliko diozula erabaki duzu. Irribarre zorroztua leundu eta “Alajaina! Zein txikia den mundua!” erantsi duzu, emakumearekin elkarrizketa ahalik eta azkarren amaitzeko guraria zuzendu diezu jainkoei. Edo autobus gidari alferrei.

Hala da, bai. Kasualitate ederra! Nik beti maite izan dut Euskal Herria, betidanik. Hizkuntza, kultura, dena. Den dena. Eta, musika, nola ez! Kortatu, Cicatriz, Eskorbuto, La polla, Barrikada... Badakizu, ezta? *Pasan los años, pasa tu vida, pasan los meses, pasan tus días, pasan las horas, también los años ¡Este puede ser tu último segundo!* Ezagutzen duzu, ezta? *Historia triste!*

Beste klasikoetako bat. Herrialde honetan Euskal Herrian bertan baino zaletasun handiagoa dute euskal musika zaratatsuarekiko. Itxaronaldia luzea izango dela dirudi.

Ezagutu, bai. Nola edo hala, bai. Baina egia esateko ez naiz oso jarraitzaile sutsua.

Ikusle fin batek zure erantzunak emakumearen aurpegian eragindako zurbiltasuna nabaritutuko lukeen.

Eta zu al zara euskalduna? Oiartzun ez duzu ezagutzen, Eskorbuto ez duzu ezagutzen... Abizena ez duzu Rodríguez izango ezta?

Ez, ez, hori ez.

Erakutsidazu.

Nola?

Erakusteko.

Erakusteko zer?

Karneta, nortasun agiria, pasaporte. Plantak egiten ez ote zaren susmoa daukat. Eta arbasoekin ez da jolasten!

Izerditan blai, lanera berandu eta bihotza oraindik ere apurtuta. Egunak nola demontre egin zezakeen okerrera? Tira, bada, hementxe zaude, ezezagun baten aurrean, mugako poliziaren aurrean egon bazina bezala, euskalduna, euskaldun petoa, zarela frogatzen.

Poltsan bilatu eta diru-zorrotik “atzerritarra” dioen Txileko nortasun agiria atera duzu.

Ikusten? Bi abizenak. Bilbao Barrenetxea.

Arretatsu begiratu du emakumeak txarteltxo eta, diru-zorroa prakako poltsikoan gorde duzularik, hasierako aldarte adeitsua bat-batean berreskuratu duela dirudi.

Ados, anai. Anai deitu zaitzaketa, ezta? Tira, emaidazu besarkada estua. Euskaldunon besarkada! Hortxe dator autobusa. Ez, ez, erratu naiz hau ez da nik hartu behar nuena. Gero arte! Agur!

Ordulariari so egin diozu. Hirurak. Gaurkoan ere berandu lanera. Zitzu bizian igo zara autobusera eta bidaia ordaintzeko txartelaren bila sartu duzu eskua prakako poltsikoan. Hutsik. Autobusa martxan jarri da eta, kaletik, oihu baten oihartzuna baino ez duzu harrapatu: *vasco culiao!*